



2014KO AZAROAREN 21EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamalauko azaroaren hogeita batean, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Insausti, Inazio Estensoro Eskisabel eta Maialen Aldasoro Aranburu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2014ko azaroaren 7an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2014ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 93 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HAMA ZAZPI MILA ETA HOGEITA HAMABABOST EURO ETA HIRUROGEITA HAMALAU ZENTIMO (17.035,74 €)koa onartu eta ordaintzea erabakitzen da. Bestalde Soroa Arkitektoak S.L.P.ren 2013ko azaroaren 29ko 2.420 euroko faktura bat onartzen da; faktura hau Mundu Bi eraikinaren eraispenerako proiektua idazketa lanengatikoa da eta eraisketa honek lortu beharreko baimen guztiak izan arte ez onartzea erabaki zen bere garaian.

III.- LAN ARRISKUEI AURRE HARTZE ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA.-

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez, "Lan arriskuei aurre hartzeko zerbitzua" kontratatzeko esparru akordioa SOCIEDAD DE PREVENCIÓN DE FREMAP, S.L. enpresari esleitzea proposatu diola jakinarazi du.

Hau honela eta Lazkaoko Udala esparru akordio horretara atxikita egonik, "Lan arriskuei aurre hartzeko zerbitzua" SOCIEDAD DE PREVENCIÓN DE FREMAP, S.L. enpresari esleitzea proposatzen da, Gipuzkoako Foru Aldundiak esleipen hori baieztatzen duenean.

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, proposamena onartu egiten du.

IV.- 2014KO PRODUKTIBITATE GEHIGARRIA.-

Lazkaoko Udalaren langileek denboraldi honetan udal kudeaketan garatutako helburuak lortzeko egin duten lana kontutan izanda, langileek erakutsitako interesa, helburu horiek udal langileen inizatiba eta errendimentuak lagunduta lortu direnez eta Lazkaoko



Udalak diseinatutako kudeaketa eraginkor eta gardenean udal langileek aurrerapausu garrantzitsuak ematen lagundu dutela kontutan izanda baita ere, izaera berezi eta ez-ohikoz eta 2014 urteari bakarrik eraginez, proposamenari erantsitako zerrendan azaltzen diren Lazkaoko Udalaren langileentzako, produktibitate gehigarria esleitzea proposatzen da. Gehigarri hau, langile bakoitzarentzako, mila zazpiehun eta zortzi euro eta laurogeita hamar zentimokoa izango da.

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak zazpi gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



A handwritten signature in blue ink, written over the seal. The signature is cursive and appears to be the name of the Mayor (Alkateak).